

ERABAKIA, 2015eko UZTAILAREN 17koa, UPV/EHUKO GERENTEARENA, HAINBAT LANPOSTU ZERBITZU EGINKIZUNETAN ALDI BATEZ BETETZEKO DEIALDIA IRAGARTZEKO DENA.

EGITEZKO AURREKARIAK

Erabaki honen eranskinean zehazten diren lanpostuek, utzik daudenez eta egoera hauek zuzenbideratzeko, Gerentzia honek plazak betetzeko zerbitzu eginkizunaren bitartez ekiteari erabaki du.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.-Zerbitzu-betekizuna honako arautegietan zehazten da: Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea, 190/2004, urriaren 13ko Dekretuan, Euskal Herriko Unibertsitateko Langileen Lan-Baldintzak Arautzeko Akordioaren 65.2. artikuluan (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua) eta administrazio eta zerbitzuko pertsonaleko funtzionarioaren zerbitzu-betekizunen prozedura barematua haztatua ezartzeko AZP Funtzionario Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioari jarraituz. Akordioa Gobernu Kontseiluak berretsi zuen 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez (2014ko abuztuko 27ko EHAAn)

Bigarrena.- Era berean, honako lege hauek aplikatu behar dira: Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio-Prozedura Bateratuaren 30/1992 Legea (azaroaren 26koa), urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuena; gainerako arau orokorrak eta eurekin bat datozen beste guztiak.

Hirugarrena: Gerentziak eskumena dauka erabaki hau emateko Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko den 2013ko urtarrilaren 30eko erabakiarekin bat etorritik (2013ko otsailaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian);

Hori guztia kontuan hartuta, eman dizkidaten eskumenen babesean, honakoa

ERABAKI DUT

Bakarra.- Erabaki honen eranskinean zehazten diren lanpostuak aldi baterako zerbitzu-betekizunetan beteko direla iragartzea.

OINARRIAK

Lehenengoa: Deialdiko lanpostua zerbitzu-betekizunen bidez hornitzeko prozedura, administrazio eta zerbitzuetako pertsonala funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa izango da. Akordioa hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAAn);

Aipatutako erabakia ikus daiteke Administrazio eta zerbitzuetako langiletako web orrialdean. Hautaketa eta hornikuntza. Barne deialdietako atalean.

Bigarrena: Eskabideak aurkezteko epea **web orrian argitaratuko hurrengo egunetik 5 laneguneko epean** amaituko da, eta pertsonalerako gerenteordetzara zuzendu beharko dira, Euskal Herriko Unibertsitateko erregistro orokorrean aurkeztuz edo, era berean, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio-Prozedura bateratuari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (azaroaren 27ko Estatu Aldizkari Ofizialean) 38.4. artikuluan jasotako beste edozein bide erabiliz.

Euskal Herriko Unibertsitateko erregistroak zehazten dira Euskal Herriko Unibertsitateko 2012ko maiatzaren 16ko erabakian daude jasota (2012ko ekainaren 18ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian), eta Interneteko helbide honetan: http://www.ehu.es/erregistroko_bulegoak.html

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako campusetan kokatutako erregistroen irekiera-ordutegia, astelehenetik ostegunera, 9:00etatik 13:00etarako izango da, goizeko ordutegian eta 15:00etatik 16:30etara arratsaldeko ordutegian. Ostiraletan, udako lanaldian eta Aste Sainduko eta Eguberrietako txandetan, ordutegia 9:00etan hasi eta 13:00etan amaituko da.

Hirugarrena: Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean lehiatzaileek baldintza eta betebeharrak guztiak beteta izan beharko dituzte.

Laugarrena: Balioztatu beharreko merezimenduak administrazio eta zerbitzuetako pertsonala funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioaren 6. artikuluan azaldutakoak izango dira. Akordio hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAAn) araututakoak izango dira,

Eskariak aurkezteko epearen amaierako egunean betetzen diren merezimenduak besterik ez dira aintzat hartuko.

Bosgarrena: Eskararekin batera, izangaiek eskaturiko baldintzak betetzen direla ziurtatzen duten egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko dituzte, baita lehiatzaileek beste administrazio publikoetan emandako zerbitzuak, Europar Batasuneko hizkuntza ofizialak eta titulu akademikoak egiaztatu behar izango dituzte, 2014ko uztailaren 1eko akordioaren 5.4 artikuluan esandaka salbu.

Euskal Herriko Unibertsitateak ofizioz balioetsiko ditu antzinasunari, Euskal Herriko Unibertsitateko lan eginiko zerbitzuei eta maila pertsonal finkatuari dagozkion merituak.

Seigarrena: Deialdi honetan parte hartzen dutenek uko egin diezaiokete deladian parte hartzeari behin behineko puntuazioaren aurkako erreklamazio aurkezteko epea amaitzen den eguna arte. Gero, esleipenari uko egiten badiote, AZP funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak deitu eta esleitzeko prozedura arautzeko den akordioaren 4.3. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko zaie.

ERREKURTSOAK

Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta bere aurka berraztertzekeo errekurtsoa jarri ahal izango da Gerentzia honen aurrean, hilabeteko epean edo, nahiago bada, zuzenean jarri ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jurisdikzio horretan eskumena duen epaitegian; horretarako hilabete bi egongo dira, erabaki hau administrazio eta zerbitzuetako pertsonala funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura arautzen duen 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioak jarraituz, 2014ko uztailaren 10eko Gobernu Kontzeilauran erabakiaren bidez berretsia. (2014ko abuztuko 27ko EHAAn) 5.2. artikuluan adierazitako moduan argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Leioan, 2015eko uztailaren 17an

GERENTEA

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia (2013ko otsailaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria).

Miren Lorea Bilbao Arteché



I. ERANSKINA

KOD.	ZENTROA	LZ Zk	ROD.	LANPOSTUAREN IZENA	HOR.	H.E.	ALDESKALA	O.ESP.	MAIL	HE	B.E.	MPU	LN	
001	IDAZKARITZA NAGUSIA	F 1224	378	Administrazioaren Berrikuntza eta Modernizazioaren Zerbitzuko burua	1	L	A	01	25539,8	26*	3.14/01	3	N	
008	IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA	F 1187	275	ikerketaren gestioko teknikaria	26	L	A	01	17671,4	23	3.11/06	11B2	3	N
008	IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA	F 1229	275	ikerketaren gestioko teknikaria	38	L	A	01	17671,4	23	3.17/12		3	N
008	IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA	F 1230	275	ikerketaren gestioko teknikaria	39	L	A	01	17671,4	23	3.15/06		3	N
008	IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA	F 1231	383	ikerketako etikaren gestioko teknikaria	1	L	A	01	17671,4	23	3.17/12	57	3	N
010	IRAKASLE-IKERTZAILEEN ARLOKO ERREKTOREORDETZA	F 1232	277	irakasleen plantillako teknikaria	2	L	A	01	17671,4	23	3.15/06		3	N
083	BIZKAIKO CAMPUSEKO BIBLIOTEKA	F292	025	Bibliotekako Laguntzailea	15	L	B	08	13816	21	3.98/12		3	TS
035	GIPUZKOAKO CAMPUSEKO GERENTEORDETZA	F 1235	182	campuseko errektoreordetzako administraria	4	L	B/C	06/02	15634,5	22	3.15/06		2	N
034	ARABAKO CAMPUSEKO GERENTEORDETZA	F 1233	147	menpekoa	131	L	E	04	11154,1	13	1.15/06		1	N
034	ARABAKO CAMPUSEKO GERENTEORDETZA	F 1234	147	menpekoa	132	L	E	04	11154,1	13	1.15/06		1	T
036	BIZKAIKO CAMPUSEKO GERENTEORDETZA	F 492	147	menpekoa	44	L	E	04	11154,1	13	1.12/12		3	T
036	BIZKAIKO CAMPUSEKO GERENTEORDETZA	F 517	147	menpekoa	50	L	E	04	11154,1	13	1.98/12		3	N
036	BIZKAIKO CAMPUSEKO GERENTEORDETZA	F 891	147	menpekoa	94	L	E	04	11154,1	13	1.98/12		3	T
036	BIZKAIKO CAMPUSEKO GERENTEORDETZA	F 920	147	menpekoa	100	L	E	04	11154,1	13	1.12/12		3	T

LANANDIA

N-ARAUTUA

T-ARRATSALDEZ JARRAITUA

TS-ARRATSALDEZ JARRAITUA, LARUNBATAK BARNE

ESKALA

01-GESTIO-TEKNIKARIA

06/02 UNIBERTSITATE-GESTIOA/ADMINISTRARIA

04-MENPEKOA

08-ARTXIBO, BIOBLOTEKA ETA MUSEOETAKO LAGUNTZAILEA

BETEBEHAR ESPEZIFIKOA

11B2-INGLES

57 - Biologia, biomedikuntza, gizarte eta/edo portaeraren zientzien lizentziatu titulua. Bioetikako masterra (GIEB). B eta C kategorietako gaitasuna, animaliak esperimentaziorako eta bestelako zientzi xedeetarako erabili ahal izateko, (ECC/566/2015; 2015/04/01eko E.B.O.) (AEEB). Biosegurtasun eta arriskuen prebentzioan egiaztatutako prestakuntza (ABIEB).

* - Elkarrizketa egin behar da (II Eranskina)

II. Eranskina (Elkarrizketa) F 1224 lan-postua.

AZP funtzionarioari zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko 2014ko uztailaren 1eko Akordioaren 6.1.6 artikuluan jasotakoa betetzeko, eta deialdian argitaratutako lanpostua lantoki osagarirako 26. maila duenez, gurako guztioi elkarrizketa egin behar zaie.

Elkarrizketaren helburua da zerbitzu betekizunetan deitutako lanpostua betetzeko izangaiak dituen gaitasunak baloratzea, betiere, lanpostuaren monografian jasotako gaitasunak oinarri hartuta eta esleitu nahi diren eginkizunei buruzkoa izango da.

Proba honekin gehienez ere 5 puntu lortu ahal izango dira eta ez da baztergarria izango.

Elkarrizketarako epaimahaia

Epaimahaiburua: Iñigo Isasi Urdangarín jauna.

Ordezkoa: Jesús Moro de Arriba jauna.

Mahaikidea: Emiliano Garmendia Ferrer jauna.

Idazkaria: Aitor Sánchez Fernández jauna.

Lanpostuaren betekizunak

Pertsona honen ardura da UPV/EHUko zerbitzu publikoak berritzeko eta horien kalitatea hobetzeko planak eta proiektuak egitea, koordinatzea eta bultzatzea, eta UPV/EHUren administrazio prozeduretarako administrazio elektronikoa eraginkortasunez ezartzea.

Eginkizunak

1. Proposatzea, oinarri hartuta zehaztutako estrategiak, antolamenduaren eta prozeduren arlorako jarduera irizpideak eta plan orokorrak administrazioaren antolamendurako, berrikuntzarako, modernizaziorako eta kalitaterako, ahalegina eginda horiek errazteko, eta horien kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko.
2. Proiektuak, azterlanak eta txostenak definitzea, diseinatzea eta garatzea, administrazioaren antolamendu, berrikuntza, modernizazio eta kalitatearen arlorako, eta horien jarraipena egitea eta horiek gainbegiratzea.
3. UPV/EHUren izapide telematikoetako zerbitzu komunak deklaratzen eta gestioan parte hartzea, adibidez dokumentuen erregistroan, jakinarazpen telematikoan edo baimenetan, hartara, besteak beste, datuen truke automatizatua lortu eta paperean egindako ziurtagiriak ezabatzeko.
4. Zerbitzuen berrikuntza eta kalitatea hobetzeko ereduak eta baliabideak diseinatzea eta garatzea.
5. UPV/EHUK eskaintzen dituen zerbitzu publikoetara herritarren sarbidea erraztuko duten prozesuak ezartzea eta gestionatzea, eta herritarren parte hartzea erraztea.
6. Intranetaren bilakaeraren alde egitea, Intraneta eredu kolaboratiboa izan dadin



barne komunikaziorako, talde lanerako, ezagutza trukatzeko eta antolamenduaren arloko gaietan ikasteko.

7. Bere jarduera eremuko/unitateko/bulegoko helburuen jarraipena egitea, etengabeko berrikuspenerako eta hobekuntzarako tresnak erabilia bere jarduera eremuan/unitatean/bulegoan.

8. Erakundearen ordezkari izatea bere arlo profesionalarekin zerikusia daukaten barneko/kanpoko foroetan.

9. Ezarrita dauden koordinazio foroetan eta batzordeetan parte hartzea, eta helburuak eta proiektuak egoki txertatzea eta koordinatzea antolakuntzako beste eremu batzuetan.

10. Eta bere eskala edo kategoriari dagozkion antzeko izaeradun beste eginkizun batzuk.